



**IKUSI DIREN
ENTRETENIMENDUZKO EDUKIAK
ETA HIZKUNTZAK**

**12. Txostena
2020ko abendua**

IKUSI DIREN ENTRETENIMENDUZKO EDUKIAK ETA HIZKUNTZAK

Ikusiker Panela osatzen duten UPV/EHUko eta UPNAko ikasleei galdetu diegu azkena ikusi dituzten entretenimenduzko ikus-entzunezkoei buruz. Era berean, ikus-entzunezkoak estuki lotuta daude hizkuntzarekin, eta konbinazio anitzak gertatu daitezke kontsumitzen diren ikus-entzunezkoen hizkuntza-hautuen atzean. Eremu horri buruzko ezagutza areagotu nahi izan dugu inkesta honekin.


1. Ohar metodologikoak

Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen-linformazio eta Komunikazio Teknologien erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak.

Txosten honetan aurkituko dituzu 2020ko abenduaren 3tik 9ra bitartean luzatutako galdera-sortaren emaitzak. Jasotzen duen informazioa da ikusitako entretenimenduzko azken edukiei buruzkoa, eta erabili diren hizkuntzei buruzkoa.


Entretanimenduzko azken edukia ikusteko inkestatuek gehien erabili duten plataforma YouTube izan da %43,3rekin, telebista tradizionalak (%17,2) eta sare sozialek (%17) jarraitzen dietelarik. Erdiak baino gehiagok (%54,9) ordubate baino gutxiago pasatu du eduki hori ikusten.

1. Irudia – Ikusi duzun azken entretanimenduzko saioa non ikusi zenuen?



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko abendua


2. Irudia – Aukeratu duzun entretanimenduzko azken eduki hori ikusteari zenbat denbora dedikatu zenion?



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko abendua


Hizkuntzari dagokionez, inkestatuek gaztelania jatorri duten edukiak izan dituzte gogokoen nagusitasun osoz, eta hartara, gazteleraz ikusi dituzte edukiak gehienbat.

3. Irudia – Buruan daukazu entretenimenduzko eduki horren jatorrizko hizkuntza zein zen (bertsio originala)?



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko abendua


4. Irudia – Audioari dagokionez, aipatzen ari zaren entretenimenduzko azken saioa zein hizkuntzan ikusi zenuen?



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko abendua

Kontsumorako aukeratutako hizkuntza nagusia gaztelera izanda, azpitoluen erabilera ere nabarmen jaisten da. Hala ere, aipatu kopuru baxu horretan ingelesa eta eta gaztelera izan direla erabilienak.

5. Irudia – Entreenimenduzko edukia azpitoluekin ikusi bazenuen, zein hizkuntzan aukeratu zenituen azpitoluak?



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko abendua

